

## BAKARDADEAREN HOTSA

Uxue Alberdi

*Elgoibar, 16 urte*

(MAITEMINDUAK)

1. Bien begiak izarren pare  
orain dardarti, orain herabe,  
gau iluneko ilargiaren  
sorginkerien mirabe;  
ixiltasuna muxu umelen  
esanahiaren aldare,  
zirrara guztien sare,  
une orotan zerutik hurbil  
lurretik mugitu gabe.

(AITON-ILOBAK)

2. Be(he)ko suaren txinparten garra  
leihoan euri tanten marmarra,  
aiton-ilobak solas goxoan  
ezpainetan irrifarra;  
goiko zeruan lekuko dute  
batzen dituen izarra,  
enborra eta adarra  
ur gaztea da zuhaitz zaharraren  
bizia eta indarra.

(BI LAGUN)

3. Gau ilunean argi izpia  
une garratzen puntu ezia,  
malko gorien ibaietako  
ur-lasterretan untzia;  
txori tristen txorrotxioa  
berpizten duen kabia,  
zelaletako lilia,  
lagun on baten bihotz-taupadak  
dira bestea(re)n bizia.

(... ETA NI?)

4. Gogorra baita maitasun mira  
leiho ertzean nago begira  
eztitan diren pertsona ho(r)ien  
begietako dizdira...;  
hitz goxoren bat, irribarre bat  
niretzat balitz sikira,  
laztanak nire balira...,  
ametsak ere lortu ezean  
ametsgaitz bihurtzen dira.

DOINUA: Begirada bat, begirada bi  
(Oihane Enbeita)